GALA
# PATROCINIO DEPORTIVO 2024 KIROL BABESLETZAREN
GALA

## Con vuestro patrocinio, el deporte continúa

## Zuen babesarekin, kirolak aurrera egingo du


Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física
Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030



# | Saluda

De todo el orgullo que siento, cada día, al ser Presidenta de nuestra Comunidad Foral una no puede dejar de hacer mención al deporte en Navarra. Constantemente vemos los logros de navarros y navarras en las diversas disciplinas, éxitos y triunfos para nuestro deporte; por equipos o de manera individual todos y todas gozan de prestigio, tanto en forma de competición como por ocio y entretenimiento.

El deporte es salud e implica bienestar para la ciudadanía, pero también fomenta el esfuerzo, el trabajo y el espíritu de equipo. Valores trascendentales, presentes en nuestra sociedad y visualizados en la actividad deportiva.

No obstante, todos estos logros deportivos de los que nos enorgullecemos no serían posibles sin la colaboración y la aportación de empresas y entidades con vuestros patrocinios. El apoyo que ofrecéis ayuda a la materialización de los proyectos y a seguir sosteniendo nuestro deporte y atrayendo talento.

Desde el Gobierno de Navarra os damos las gracias por vuestras aportaciones. Esas ayudas que dan vida a clubes, federaciones, deportistas y a eventos multitudinarios. Vuestro valor se ve reflejada, cada año, en esta gala dedicada a todos vosotros y vosotras premiándoos con el merecido reconocimiento y destacando a la empresa patrocinadora del año.

Continuemos haciendo afición, impulsando y fomentando el deporte y siendo referentes. Participando de un éxito del que patrocinadores y patrocinadoras sois una parte fundamental.

**María Chivite Navascués**
Presidenta del Gobierno de Navarra

# | Agurra

Gure Foru Komunitateko lehendakari izatean egunero sentitzen dudan harrotasuna dela eta, batek ezin du aipatu gabe utzi Nafarroako kirola. Etengabe ikusten baititugu nafarren lorpenak kirol honetan eta hartan; arrakastak eta garaipenak gure kirolarentzat; taldeka nahiz banaka, guztiek dute ospea, hala lehia moldean nola aisialdian nahiz entretenimenduan.

Kirola osasuna da eta ongizatea dakarkie herritarrei, baina era berean, ahalegina, lana eta talde espiritua sustatzen ditu. Funtsezko balioak, gure gizartean errotuak eta kirol jardueraren bidez ikusaraziak.

Hala ere, harrogarri zaizkigun kirol lorpen horiek guztiak ez lirateke posible izanen enpresek eta erakundeek zuen babesletzaren bidez ematen duzuen laguntzarik eta ekarpenik gabe. Eskaintzen duzuen babesa lagungarria baita proiektuak gauzatzeko eta, lagungarria ere, gure kirolari eusten eta talentua erakartzen jarraitzeko.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak eskerrak eman nahi dizkizue zuen ekarpenengatik. Laguntza bizigarriak baitira klub, federazio, kirolari eta ekitaldi jendetsuetarako. Zuen balioa urtero islatzen da zuei guztiei eskainitako gala honetan, ongi merezi duzuen aitortzaren bidez sarituz eta urteko enpresa babeslea nabarmenduz.

Jarrai dezagun zaletasuna sortzen, kirola bultzatzen eta sustatzen, eta erreferente izaten. Jarraitu ere parte hartzen zuok babesleok funtsezkoak zareten arrakasta horretan.

**María Chivite Navascués**
Nafarroako Gobernuko lehendakaria

**Contratos registrados por el IND**
**NKIk erregistratutako kontratuak**

**Cantidades aportadas**
**Emaniko diru kopuruak**




El Gobierno de Navarra, a través del Instituto Navarro del Deporte, ha elaborado una campaña para visibilizar la importancia del patrocinio deportivo porque las empresas y entidades son importantes en la promoción del deporte. El objetivo es de reconocimiento, agradecimiento y para animar a la inversión en deporte.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bidez, kanpaina bat prestatu du kirol babesletzak duen garrantziari ikusgaitasuna emateko, enpresak eta entitateak garrantzitsuak baitira kirola sustatzeko. Helburua aitortza eta esker ona erakustea da, eta kirolean inbertitzera animatzea.

# Patrocinio
# Babesletza

## ***Patrocinio deportivo para las empresas***
### *Beneficios fiscales*

El Impuesto de Sociedades regula en Navarra las deducciones por gastos en patrocinio deportivo. Las empresas podrán deducirse desde el 30% hasta el 40% derivados de contratos de patrocinio. En el caso de contratos en actividades sólo de mujeres, la deducción es del 40% en todos los casos.

**Cantidades deducibles** de la cuota líquida final en el Impuesto de Sociedades:

> Hasta 30.000 € inclusive .................................................30%
> Hasta 60.000 € inclusive .................................................35%
> Más de 60.000 € ...........................................................40%
> Proyectos Deporte y Mujer.................................................40%

***Para que los equipos y los clubs nos sigan emocionando, y los sueños de tantos y tantas deportistas se hagan realidad, el deporte necesita el apoyo de los patrocinadores. Con vuestro patrocinio, el deporte continúa.***

## ***Enpresendako kirol babesletza***
### *Onura fiskalak*

Sozietateen gaineko Zergak arautzen ditu Nafarroan kirol babesletzan egiten diren gastuengatiko kenkariak. Enpresek babesletza kontratuetatik eratorritako gastuen %30etik %40ra bitarteko kenkaria egiten ahalko dute. Emakumeak soilik ari diren jardueren kontratuetan, berriz, kasu guztietan kenkaria %40koa da.

Sozietateen gaineko Zergaren azken kuota likidotik kentzen ahal diren kantitateak:

> 30.000 €–ra bitarte, hori barne ...........................................%30
> 60.000 €–ra bitart, hori barne ........................................... %35
> 60.000 €–tik gora, ........................................................... %40
> Kirola eta Emakumeak proiektuak........................................ %40

***Taldeek eta klubek gugan zirrara egiten jarrai dezaten, eta hainbeste kirolariren ametsak bete daitezen, kirolak babesleen babesa behar du. Zuen babesarekin, kirolak aurrera egingo du.***


Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física
Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

## *EJEMPLO DE PATROCINIO*

Una empresa, domiciliada en Navarra, ha patrocinado a lo largo del año a un equipo con 4.000 euros, habiendo tramitado correctamente la correspondiente declaración de interés social de la actividad, y presenta la siguiente declaración del Impuesto de Sociedades:

**INGRESOS**

Ventas.......................................................65.000 €

Ingresos financieros ..............................2.100 €

TOTAL.........................................................67.100 €

**GASTOS**

Compras ...................................................43.200 €

Gastos diversos ..................................... 7.800 €

Publicidad por contrato de patrocinio ..... 4.000 €

TOTAL ......................................................55.000 €

BASE IMPONIBLE ..................................12.100 €

TIPO DE GRAVAMEN ...............................28%*

CUOTA ÍNTEGRA .................................. 3.388 €

**DEDUCCIÓN 30% POR PATROCINIO DEPORTIVO 1.200 €**

CUOTA A PAGAR A HACIENDA.....................2.188 €

(*) Tipo aplicable a la entidad y ejercicio correspondiente

## *BABESLETZA ADIBIDEAK*

Nafarroan helbideraturiko enpresa batek 4.000 euroko babesletza egin dio talde bati urte osoan, eta ongi tramitatu du jardueraren gizarte-intereseko deklarazioa. Bada, aitorpen hau aurkeztu du Sozietateen gaineko Zergan:

**DIRU-SARRERAK**

Salmentak ...................................................65.000 €

Finantza diru-sarrerak ................................2.100 €

GUZTIRA ....................................................67.100 €

**GASTUAK**

Erosketak ...................................................43.200 €

Askotariko gastuak ...................................... 7.800 €

Babes-kontratuaren publizitatea ................4.000 €

GUZTIRA ....................................................55.000 €

ZERGA-OINARRIA ......................................12.100 €

KARGA-TASA ...................................................%28*

KUOTA OSOA ........................................... 3.388 €

**KIROLA BABESTEKO INBERTITUTAKOAREN KENKARIA............. 1.200 €**

OGASUNARI ORDAINDU BEHARREKO KUOTA.....................2.188 €

(*) Entitateari ekitaldi horretan dagokion tasa.

## SALTOKI

*Galardón al Mejor Patrocinador*
*Babesle Onenaren Saria*



**Irene Martín Cabezas**
Directora de Marketing de Saltoki
Saltokiko Marketing Zuzendaria

" Desde Saltoki queremos mostrar nuestro más sincero agradecimiento por este premio que nos anima a mantener nuestro compromiso con los proyectos en los que actualmente colaboramos. Nuestro agradecimiento también a todas las empresas, ayuntamientos e instituciones públicas que apoyan el deporte navarro y que seguramente se merecen este premio tanto como Saltoki. Y gracias a todos los equipos y proyectos que lucen con orgullo el nombre de Saltoki o Saltoki Home y marcas que distribuimos como Kosner o Celer; este premio también es de ellos.

Saltoki siempre ha apostado por colaboraciones a largo plazo por eso nos satisface pensar que hemos contribuido a que los proyectos deportivos se hayan podido mantener en el tiempo y, por nuestra parte, confiamos en que esta relación se alargue muchos años más. Respecto a los patrocinios que más recientemente hemos impulsado junto a Kosner y Celer como el de Osasuna, hemos buscado una relación más estrecha y duradera que vaya más allá de un simple acuerdo comercial. Nos alegra haber hecho coincidir las necesidades de estas marcas con las aspiraciones del club para seguir creciendo y avanzando. "

" Saltokik eskerrik zintzoenak eman nahi ditu sari horrengatik, gaur egun lankidetzan ari garen proiektuekiko konpromisoari eustera bultzatzen gaituelako. Eskerrak ere eman nahi dizkiegu Nafarroako kirola babesten duten enpresa, udal eta erakunde publiko guztiei, ziur aski Saltokik bezain beste merezi baitute sari hau. Eta eskerrik asko Saltoki edo Saltoki Home izena eta banatzen ditugun markak –Kosner edo Celer, adibidez– harrotasunez erakusten dituzten talde eta proiektu guztiei. Sari hau ere haiena baita.

Saltokik beti egin du epe luzerako lankidetzen aldeko apustua; hori dela eta, oso pozgarria zaigu pentsatzea lagundu dugula kirol-proiektuak denboran zehar mantentzen, eta, gure aldetik, harreman hori askoz ere urte gehiagoan luzatzea espero dugu. Berrikitan, Kosner eta Celerrekin nahiz Osasunarekin bultzatu ditugun babesletzei dagokienez, merkataritza-akordio hutsaz haratago doan harreman estuago eta iraunkorragoa izan dugu xede. Pozgarria zaigu marka horien beharrak eta klubaren nahiak bateratzeko egin dugun bidea, hazten eta aurrera egiten jarraitzeko. "

RECONOCIMIENTOS
AITORTZAK

## TELCO MADERAS

*Patrocinio Fiel / Longevo*
*Babesletza Fidela / Luzea*



**Antonio Tellechea Goyena**
Administrador de Telco Maderas
Telco Maderas Enpresako Administratzailea

*"Para Telco Maderas, el ciclismo supone un apoyo publicitario y un impulso a jóvenes ciclistas que además de ser competitivos para alcanzar metas superiores, priorizan el trabajo en equipo, igual que en nuestra empresa donde también destaca el trabajo en equipo.*

*Recibir este galardón significa un reconocimiento del que nos sentimos muy orgullosos, ya que se nos reconoce una labor en apoyo al ciclismo de base de más de 30 años, una labor que queremos que continúe en el tiempo. Por lo menos otros 30 años más."*

*" Telco Maderas-entzat, txirrindularitza publizitate-babesa eta bultzada ematea da, maila goragoko helmugak lortzeko lehiakorrak izateaz gain, talde-lanari lehentasuna ematen dioten txirrindulari gazteei; beraz, gure enpresan bezala, bertan ere talde lana nabarmentzen baita.*

*Sari hau jasotzea aitortza da eta oso harro sentitzen gara hartaz; izan ere, aintzat hartu da oinarrizko txirrindularitza bultzatzeko 30 urtetik gora egin dugun lana, eta lanari jarraipena eman nahi diogu denboran, gutxienez beste 30 urte urtez iraun dezan."*

## CONGELADOS DE NAVARRA

*Patrocinio Deporte Femenino*
*Emakumezkoen Kirolaren Babesletza*




**Myriam Ariz Gorriz**
Directora de Marketing e Innovación de Verleal
Verleal enpresako Marketin eta Berrikuntza zuzendaria.

*" En nombre del equipo de Verleal quiero agradecer enormemente el reconocimiento del Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física. Para nosotros este premio supone un gran reconocimiento a todo el esfuerzo que venimos haciendo desde que lanzamos Verleal, una marca navarra con un compromiso con la verdura de la máxima calidad. Desde el comienzo tuvimos claro nuestro compromiso con la alimentación saludable y con los hábitos de vida saludable. Qué mejor manera de hacerlo que con el patrocinio del Club Atlético Osasuna, primero con el equipo masculino y ahora con el equipo femenino. Compartimos valores con las jugadoras y un claro ejemplo es la campaña que lanzamos entre Verleal y Osasuna el Día de la Mujer: "Llegar a ser". Verleal quiere llegar a ser el referente de la verdura como Osauna está siendo el referente del deporte femenino en nuestra comunidad.*

*Además, nuestro compromiso con el patrocinio deportivo ha sido y es firme. Congelados de Navarra en su ADN, en sus 26 años de historia, lleva patrocinando deporte en los diferentes equipos de la zona de la Ribera. "*

*" Verleal-go taldearen izenean, egiazki eskertu nahi dut Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren aitortza. Izan ere, sariaren bidez benetan aintzat hartu da Verleal abiarazi genuenetik egiten ari garen ahalegin guztia. Nafarroako marka da, kalitate goreneko barazkiarekin konpromisoa duena. Hasieratik beretik, argi izan genuen gure konpromisoa bai elikadura osasungarriarekin, bai bizimolde osasuntsurako ohiturekin. Ez da Club Atlético Osasuna babestea baino modu hobeagorik hori egiteko; lehenik, gizonezkoen taldearekin eta, orain, emakumezkoen taldearekin. Neska jokalarien balio berberak ditugu eta horren adibide garbia da Verleal-ek eta Osasunak Emakumearen Egunean abiarazi genuen kanpaina: "Izatera iritsi". Verleal-ek barazkiaren erreferentea izatera iritsi nahi du, Osasuna gure komunitateko emakumeen kirolaren erreferentea den bezala.*

*Tinkoa da, gainera, kirol babesletzarekin izan dugun eta dugun konpromisoa. Izan ere, Congelados de Navarra-k bere ADNean, bere 26 urteko ibilbidean, jardun du kirola babesten Erribera aldeko hainbat taldetan."*

## SIF DISFAMON

*Patrocinio Deporte Autóctono*
*Bertako Kirolaren Babesletza*



**Felipe Ruiz Ruiz de Eguino**
Gerente
Kudeatzailea

*" Hace nueve años que se fundó la empresa y los tres socios agradecen al INDAF, del Gobierno de Navarra, queles hayan concedido este galardón por su apuesta por el deporte autóctono. Todos sabemos lo importante que es el deporte como actividad física, pero también porque permite aprender valores como es el trabajo en equipo, la superación y, sobre todo, el respeto. Es un orgullo patrocinar a los clubes y equipos con los que hemos crecido. La empresa seguirá esforzándose para patrocinar deportivos. "*

*" Enpresa duela bederatzi urte sortu zen, eta hiru bazkideek eskerrak eman nahi dizkiote Nafarroako Gobernuko NKJFIri saria emateagatik, bertako kirolaren alde egindako apustua aitortze aldera. Denok dakigu zeinen garrantzitsua den kirola jarduera fisiko gisa, baina era berean, balioak ikastea ahalbidetzen duelako, hala nola talde lana, ahalegina egitea eta, batez ere, errespetua. Harro egoteko modukoa da babestea gurekin batera hazi diren klubak eta taldeak. Enpresak ahalegina egiten jarraituko du kirola babesteko."*

## CONSTRUCCIONES IZQUIERDO IBAÑEZ

*Patrocinio Multiactividad*
*Jarduera anitzaren babesletza*



**Alberto Izquierdo Ibáñez**
Gerente de Construcciones Izquierdo Ibáñez
Construcciones Izquierdo Ibáñez Enpresako Kudeatzailea

*"Este galardón supone mucha ilusión y estar convencidos de que lo que estamos haciendo, lo estamos haciendo bien.*
*Estamos muy orgullosos de patrocinar deporte que practican personas con capacidades diferentes como las personas ciegas o el equipo Genuine de Osasuna, porque nos transmiten valores muy importantes. En este amplio abanico de patrocinios también nos gustaría destacar el patrocinio al deporte femenino como en su día hicimos con Itxako y ahora con el Xota, aportando nuestro granito de arena. "*

*" Sariak ilusio handia egin digu eta erakutsi digu egiten ari garena ongi egiten ari garela.*
*Oso harro gaude gaitasun desberdinak dituzten pertsonek egiten duten kirola babestearekin, hala nola itsuek edo Osasunako Genuine taldeak egiten dutenarekin, oso balio garrantzitsuak transmititzen dizkigutelako. Babesletza sorta zabal honetan, halaber nabarmendu nahiko genuke emakumeen kirolaren babesletza, bere garaian Itxako-rekin eta gaur egun Xota-rekin egiten ari garen bezala, gure harri-koxkorra ekarrita. "*

## GRUPO EMPRESARIAL ENHOL S.L.

*Patrocinador Comarcal*
*Eskualdeko Babeslea*



**Natalia Oliver**
Directora de reputación corporativa y ASG
Ospe korporatiboko eta ASGko zuzendaria

*" Se trata de un reconocimiento a las cosas bien hechas. El Gobierno de Navarra, a través del INDAF, reconoce y pone en valor el esfuerzo que hacemos las agrupaciones en promover e impulsar el bienestar en materia deportiva. Dedicar esfuerzos en lo local es fundamental. Somos de aquí y queremos seguir estando aquí, en la Ribera, para impulsar la zona. Queremos generar un impacto positivo en el entorno. Los equipos pequeños y mayores necesitan a las organizaciones para impulsar, apoyar y sentir los colores de la misma forma. "*

*" Ongi egindako gauzen aitortza da. Nafarroako Gobernuak, NKJFIren bitartez, aitortzen du elkarteok kirol arloan ongizatea sustatzeko eta bultzatzeko egiten dugun ahalegina, horren balioa ere aintzat harturik. Funtsezkoa baita tokian-tokian ahalegina egitea. Hemengoak gara eta hemen egoten jarraitu nahi dugu, Erriberan, ingurua bultzatzeko. Ingurunean eragin onuragarria sortu nahi dugu. Talde txikiek eta handiek erakundeak behar dituzte, koloreak modu berean bultzatzeko, babesteko eta sentitzeko. "*



# | Despedida

Por tercer año consecutivo, reunimos a empresas entidades deportivas en la celebración de la Gala del Patrocinio Deportivo, conscientes de la importancia que tiene para todo el tejido deportivo de Navarra. Este evento surge de la necesaria puesta en valor del esfuerzo que realizan las empresas y firmas comerciales con el deporte, y como reconocimiento público desde las instituciones a las empresas patrocinadoras.

Desde el Instituto Navarro del Deporte y la Actividad Física creemos necesario facilitar los encuentros entre los agentes deportivos y económicos que puedan generar unas sinergias continuadas en el tiempo, Y que puedan cristalizar en proyectos de colaboración.

Debemos reconocer el interés de quienes han creído que apoyar el deporte merece la pena porque nos ayuda a ser una comunidad generosa y comprometida. A quien decide vincular su marca a valores tan importantes como el esfuerzo, la igualdad, la superación, el trabajo en equipo o la salud.

Además del galardón a la empresa patrocinadora más destacada, premiamos a otras firmas por apoyar en áreas del deporte que consideramos estratégicas en su misión de hacerlo accesible a todos y todas en cualquier parte del territorio. Enhorabuena a las firmas premiadas, y gracias a todas las que impulsáis el deporte y su fomento en Navarra. Todas sois parte del equipo.

**Rebeca Esnaola Bermejo**
Consejera de Cultura y Deporte

# | Azken agurra

Hirugarren urtez jarraian, enpresak eta kirol entitateak bildu ditugu Kirol Babesletzaren Gala ospatzeko, jakinik horrek Nafarroako kirol sare osorako duen garrantzia. Enpresek eta merkataritza-firmek kirolaren alde egiten duten ahaleginaren balioa nabarmendu beharra dagoelako sortu da ekitaldia eta, era berean, erakundeek enpresa babesleak jendaurrean aitortzeko.

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak beharrezkotzat jotzen du kirol eta ekonomia arloko eragileen arteko topaketa erraztea, denboran iraunen duten sinergiak sortze aldera. Elkarlan proiektuak gauzatzeko modukoak.

Kirolaren alde egitea merezi duela uste dutenen interesa aitortu behar dugu, komunitate eskuzabala eta konprometitua izaten laguntzen digulako. Eta, aitortu ere, ahalegina, berdintasuna, hobekuntza, talde lana, osasuna eta gisako balio hain garrantzitsuekin bere marka lotzea erabakitzen duen huraxe.

Enpresa babesle nabarmenarendako sariaz gain, beste firma batzuk ere saritu ditugu estrategikotzat jotzen ditugun kirol arloen alde egiteagatik, kirola jende guztiaren eskura jartzen baitute gure lurraldeko edozein lekutan. Zorionak firma sarituei, eta eskerrik asko bai kirola bai kirol sustapena Nafarroan bultzatzen ari zareten guztiei. Guztiak ere talde bereko kide baitzarete.

**Rebeca Esnaola Bermejo**
Kultura eta Kiroleko kontseilaria

GALA
PATROCINIO
DEPORTIVO
2024 KIROL
BABESLETZAREN
GALA

**Gracias, sois parte del equipo**

**Eskerrik asko. Taldeko kide zarete**

GALA

PATROCINIO DEPORTIVO 2024 KIROL BABESLETZAREN

GALA